

KUDEAKETA PLANA

2019-2023 MENDARO

1 Aurrekariak eta justifikazioa

2 Gure Misioa

3 Gure Ikuspena

4 Gure Balioak

5 Gure Kudeaketa Plana: Antolakuntza, Herritartasuna eta Lurraldea.

1 Aurrekariak eta justifikazioa

Legealdi berria hastear dago, eta Alkatetza honek Gobernu Taldeak hurrengo 4 urteetako jarduera politikoa modu ordenatu eta arrazoizko baten antolatzeko Legealdi Plan bat prestatzearen komenigarritasuna adierazten du.

Legealdi Plan baten bitartez jarduera politikoa zehazteak, dudarik gabe, hainbat onura ekar ditzake:

- Eremu bakoitzeko helburuak ezartzen eta lehenesten ditu.
- Udal Aurrekontuaren lanketa errazten du, baliabideak aurretik lehenetsitako helburuen arabera arrazionalizatzean eta banatzean prestaketaren oinarrizko elementu bilakatzen baita.
- Bide-orri bilakatzen denez, gobernu-jarduera errazten du.
- Gobernu Organoak onetsi dituzenez, Administrazio-antolakuntzaren eta helburuen arteko lotura indartzen du.
- Bai hiritartasunak bai oposiziokoek bere betetze-maila neur dezaten ahalbidetzen du.
- Kudeaketa-publikoaren gardentasunaren eta parte hartzearen seinu bilakatzen da.

Plan honen lanketa-prozesuak Alkatetza izan du buru, eta Gobernu Taldeak eta antolakuntzako arduradun tekniko guztiek parte hartu izan dute.

2 Gure Misioa

Misioak legealdi honetan zehar garatuko dugun jarduera nagusia, eskainiko diren zerbitzuekin ase nahi ditugun beharrianak, zein errealitatetan landuko diren eta erakutsi nahi dugun irudi publikoa definitzen ditu; azken finean, gure Misioaren zehaztapena hurrengo galderari erantzunez lor genezake: Zertarako gaude Udalean?

Gobernu Talde honen **Misioa** Baliabideak modu eraginkorrean kudeatzea, herri honetan bizi diren pertsonen bizikaltate ona eman diezaieten, bertan osorik hazi eta bizi daitezen, guztion onerako eraldatzeko gaitasunarekin da.

3 Gure Ikuspena

Gure Ikuspegiak Gobernu Talde honek etorkizunean, 2019-2023 Legealdian, bizi nahiko lukeen egoera deskribatzen du. Gure Ikuspegiaren xedea antolakuntza zuzendu, kontrolatu eta bultzatzea da, hala finkatu ziren helburuak lor daitezen. Gure Ikuspegiaren zehaztapena hurrengo galderari erantzunez lor genezake: Zertan nahi dugu hurrengo 4 urteetan gure udalerrria bilakatzea?

Ikuspegia zera da: Mendaro udalerrri ATSEGINA, irisgarria, osasungarria, konektatua eta segurua izatea, eta herritar AHALDUNDU, inklusibo, ekitatibo, euskaldun eta sortzailea izatea, ingurune PRODUKTIBO, iraunkor, eraginkor, erresiliente eta klimarekin eta biodibertsitatearen kontserbazioarekin konprometitua. Ikuspegi hau, aurreko atalean deskribatutako Misioarekin batera, legealdi honetan gure hausnarketa eta jarduera guztiak bideratuko dituzten elementuak izango dira.

4 Gure balioak

Gure Balioek Gobernu Talde honen kudeaketaren buru izan behar duten oinarriko printzipioak definitzen dituzte,

1. Arreta pertsonalizatua eta gardena.
2. Zerbitzuaren Bikaintasuna eta Etengabeko Hobekuntza.
3. Ingurunea eta ingurumena errespetatzea eta babestea.
4. Erresilientzia eta erreakzio-gaitasuna.
5. Parte-hartzearen, lankidetzaren eta berrikuntzaren kultura.

5 Gure Kudeaketa Plana

Gure Legealdi Plana gure balioen arabera gure ikuspegia eskuratu eta gure helburuak lortu ahal izateko formalki hautaturiko eta lehenetsitako jarduera-multzoa dela kontsideratzen dugu.

Jarraian, gure helburuak, horiek lortu ahal izateko jarduerak, bai eta haren garapeneko arduradun politiko eta teknikoak eta kronograma bat jasotzen ditugu. Hori guztia eremuen arabera antolatuta:

ANTOLAKUNTZA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
				'19	2020	2021	2022	'23
1. ANTOLAKUNTZA BERRIA	1. Antolakuntza berria. Hiru batzorde informatiboetara murriztea.		Alkatea – Idazk-Kontu	█				
	2. Asteko KOORDINAZIO bilerak sortzea. Kudeaketa taldea.		Alkatea – Idazk-Kontu	█				
	3. Egutegi instituzional bat ezartzea.		Alkatea – Idazk-Kontu	█				
	4. Jarraipen eta ebaluazio sistema.		Alkatea – Idazk-Kontu			█	█	
2. KUDEAKETA PLANAK	1. Kontratazio + Araudi plana idaztea		Alkatea – Idazk-Kontu	█	█	█	█	█
	2. Diru-laguntzen plan estrategikoa. Barne Kontrolerako Plana		Alkatea – Idazk-Kontu		█	█	█	█
	3. Komunikazio-plana. Giza baliabideen plana		Alkatea – Idazk-Kontu		█	█	█	█
	4. Harrera-plana eta prestakuntza-plana		Alkatea – Idazk-Kontu		█	█	█	█

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
				'19	2020	2021	2022	'23
3. BARNE ANTOLAMENDUA BIRDEFINITZEA, KUDEKAETA HOBETZEKO.	1. Lanpostuen balorazioa eta horien finkapena.		Alkatea – Idazk-Kontu					
	2. Enpleguaren ordezkapena		Alkatea – Idazk-Kontu					
	3. Etengabeko prestakuntza		Alkatea – Idazk-Kontu					
4. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA EZARTZEN JARRAITZEA	1. Ezarritako izapide elektronikoen kopurua handitzea.		Alkatea – Idazk-Kontu					
	2. Izapideen eskuliburua eguneratzea.		Alkatea – Idazk-Kontu					
	3. Papera ezabatu pertsonal politikoari dagokionez.		Alkatea – Idazk-Kontu					
	4. Erabilera telematikoak sustatzea herritarrekin		Alkatea – Idazk-Kontu					
	5. Herritarren parte-hartzea udal proiektuetan		Alkatea – Idazk-Kontu					

HERRITARTASUNA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
				'19	2020	2021	2022	'23
1.HERRITARREN ONGIZATEA BERMATZEA.	1. Beharren diagnostikoa egitea	Arloari dagozkionak	Alkatea + G.Z Teknikoa					
	2. Etxeko laguntza-zerbitzua ebaluatzea eta egokitzea, zerbitzua behar berrietara egokitzeko	Arloari dagozkionak	Alkatea + G.Z Teknikoa					
	3. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arrisku- eta desanparo-egoeretan gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuaren protokoloak eta zerbitzuak ezartzea	Arloari dagozkionak	Alkatea + G.Z Teknikoa					
	4. Gizarte larrialdietako laguntzak bermatzea	12.000	Alkatea + G.Z Teknikoa					
	5.- Adikzioei buruzko Plana (1/2016 Legea, apirilaren 7koa, 68.1.a artikulua)		Alkatea + G.Z Teknikoa					
2. BIZIKIDETZA BERMATZEA	1. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatzea. I. planaren ebaluazioa, II. Berdintasun Plana egitea	25.000	Alkatea + G.Z Teknikoa + Daiteke					
	2 Giza eskubideei eta aniztasunari buruzko prestakuntza		Alkatea + Kultur din+G.Z Teknikoa					

LURRALDEA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
				'19	2020	2021	2022	'23
1. "LURRALDE" ARLOAREN PLANGINTZA	1. Brigadaren lanen mantentze plana	-	arkitekto teknikoa - alkatea					
	2. Gune publikoen mantentze plana	-	arkitekto teknikoa- alkatea					
	3. Eraikin publikoen mantentze plana. Autobabes planak	-	arkitekto teknikoa- alkatea					
	4. Kartografia digitala. Eguneratzea		arkitekto teknikoa- alkatea					
2. IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA SUSTATU	1. 2019ko IRISGARRITASUN PLANaren jarraipena	-	arkitekto teknikoa - alkatea					
	2. 39 eremuko zubiaren bideragarritasuna aztertu	15.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	3. Zelaikua plazako irisgarritasuna	106.400 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	4. Azpilgoeta auzoko berrurbanizatze proiektua	300.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	5. Kilimon etorbidetik Ospitalerako igogailuen proiektua	900.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					

HELURU ESTRATEGIKOAK		EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
					'19	2020	2021	2022	'23
3.ENERGIA JASANGARRIAREN ALDEKO APUSTUA	1. Energia jarduketa plana. 4/2019 Legearen ezarpena			arkitekto teknikoa - alkatea					
	2.Langileen formakuntza efizientzia energetikoan			arkitekto teknikoa - alkatea					
	3. Agenda 2030			arkitekto teknikoa - alkatea					
	4. Argiteria publikoan hobekuntzak (LED-ak ezarri)			arkitekto teknikoa - alkatea					
	5. Ikastolan plaka fotoboltaikoak		54.500 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
4. BIZIMODU ARDURATSU ETA JASANGARRIA SUSTATU, BALIABIDEAK ETA BIODIBERTSITATEA BABESTUZ	1. Deba ibaia babesteko ekintzak. San Antolingo araztegiara joango den kolektorearen lanak bultzatu		-	arkitekto teknikoa - alkatea					
	2. Enpresei lagundu Igartualdea poligonoko saneamenduaren konponketa behin betikoz egiteko			arkitekto teknikoa - alkatea					
	3. Landa bide publikoen erabilerari buruzko udal ordenantza		-	Idazk-Kont – arkitekto teknikoa- alkatea					
	4. Komun saileko zuhaitzen landaketa eta itxitura			arkitekto teknikoa - alkatea					

HELURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
				'19	2020	2021	2022	'23
5. LURRALDEAREN ANTOLAMENDU EGOKIA SUSTATU, BIZIKIDETZARAKO ESPAZIO SEGURUAK, OSASUNGARRIAK ETA DINAMIKOAK SORTUZ, HERRITAR GUZTIENTZAT ETXEBIZITZA NAHIKOAK ETA EGOKIAK IZANGO DITUZTENAK.	1. "Ospas" eremuaren azterketa, HAPOnen aldaketa puntuala	15.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	2. 39 eta 40 eremuen azterketa (Aizkoltxoko zelaigunea eta zubi berria), HAPOnen aldaketa puntuala		arkitekto teknikoa - alkatea					
	3. Hiri Antolaketako Plan Orokorraren berrikuspen partziala industria lurzorua lortzeko		arkitekto teknikoa - alkatea					
	4. Futbol zelaia kokatzeko lursailaren birkalifikazioa	55.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
6.- ERAIKIN ETA GUNE PUBLIKOAK MANTENDU ETA HOBETU.	1. Brigadaren biltegiaren moldaketa eta antolaketa	15.100 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	2. Goñati eraikineko goiko solairuan gimnasioa egokitu	19.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	3. Ludoteka berria Zelaikua plazan	233.600 €	arkitekto teknikoa - alkatea					

HELURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
				'19	2020	2021	2022	'23
	4. Bake epaitegia udaletxeko behe solairutik 3. solairura		arkitekto teknikoa – alkatea					
	5. Trinitateko parkeko putzua iragazgaiztu	4.220 €	arkitekto teknikoa – alkatea					
	6. Azpilgoetako autobus geltokia. Alternatibak berraztertu		arkitekto teknikoa - alkatea					
	7. WiFi eta informazio panelak kalean	51.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	8. Aitor Etxeberriaren eskultura biribilgunean	30.000 €	arkitekto teknikoa - alkatea					
	9. Gune publikoak berritu eta mantendu		arkitekto teknikoa - alkatea					
	10. Landa bideak konpontzeko plana	150.000 €/urteko	arkitekto teknikoa - alkatea					